

BESTELAKO XEDAPENAK

EKONOMIAREN GARAPEN, JASANGARRITASUN ETA INGURUMEN SAILA

1476

AGINDUA, 2023ko martxoaren 20koa, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburuarena, Euskal Autonomia Erkidegoko biotopo babestuen izena egokitzea onartzen duena.

Euskal Autonomia Erkidegoko natura-ondarearen kontserbazioa Euskal Herriko Natura Babes-
teko ekainaren 30eko 16/1994 Legearen bidez antolatu zen juridikoki; lege horrek esparru juridikoa
ematen zion natura-baliabideak, naturagune babestuak eta flora eta fauna kontserbatzeko eta anto-
latzeko. Apirilaren 15eko 1/2014 Legegintzako Dekretuaren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko
Natura Kontserbatzeko Legearen testu bategina onartu zen, ekainaren 30eko 16/1994 Legearen
ondoz ondoko aldaketak integratzeko.

Hala ere, azken urteotako lege-garapen garrantzitsuak, batez ere Natura Ondareari eta Biodi-
bertsitateari buruzko abenduaren 13ko 42/2007 Legea indarrean jarri zenetik, euskal lege-esparrua
eguneratu beharra ekarri du, egungo arazo eta eskakizunei erantzuteko. Hala, 2021ean, Euska-
diko Natura Ondarea Kontserbatzeko azaroaren 25eko 9/2021 Legea onartu zen.

Azaroaren 25eko 9/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian, biotopo babestuen arau-
bidetari buruzkoan, honako hau xedatzen da: «Natura-ondarearen arloan eskumena duen Euskal
Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorreko sailburuaren aginduz, lege hau indarrean sar-
tzean deklaraturik dagoen biotopo babestu bakoitzaren izena naturagune babestuen tipologia
egokienera egokituko da, 37. artikuluan ezarritakoaren arabera. Izen berria izateak ez du esan
nahi biotopoaren deklarazio-dekretua aldatzeko prozedura izapidetu behar denik».

Bestalde, azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 37. artikulua adierazten duenez, naturagune
babe-
stuen kasuan, kategoria horretan sartzen dira parke naturalak, natura-erreserbak, natura-monu-
mentuak eta paisaia natural babestuak. Gainera, azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 48. artikulutik
51.era bitartekoek lurralde bakoitzak kategoria batean edo bestean sartzeko izan behar dituen
ezaugarriak definitzen dituzte, eta ezaugarri horiek kontuan hartu behar dira biotopo babestuak ego-
kitzeko orduan.

Gaur egun, Euskal Autonomia Erkidegoan, babestutako biotopo gisa sailkatuta zortzi hauek
daude: Añanako diapiroa, Gaztelugatxe, Inurritza, Guardiako aintzirak, Itxina, Meatzaldea, Leitza-
ran ibaia eta Deba-Zumaia itsasertza.

Biotopo babestuaren figura desagertu dela kontuan hartuta, kategoria horretan izendatutako
espazioak aztertu behar izan dira, eta babes-figura berri bat esleitu behar izan zaie, haien ezauga-
rri partikularrak eta aplikatzen zaizkien kudeaketa-dokumentuak oinarri hartuta, erreferentziazat
hartuta, halaber, azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 37. artikuluan naturagune babestuetarako
ezarritako tipologia berriak.

Natura Kontserbatzeko Nazioarteko Batasunak (NKNB) sei kudeaketa-kategoria ezarri zituen
mundu-mailan eremu babestuak kudeatzeko, dagozkion kudeaketa-helburuetan oinarrituta eta
ezarritako erabilera bateragarrietan oinarrituta, babeserako legeko izendapen eta figuren uga-
ritzea antolatzen eta dauden naturagune babestuen tipologia desberdinak harmonizatzen.
Horregatik, naturagune babestuen kategoria berriak esleitzeko, NKNBaren eremu babestuen
nazioarteko erabilera-kategoriak esleitzeko prozedura aplikatu da.

Kontuan hartuta azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 53.1 artikuluan ezarritakoa aplikatuz, natura-gune babestuen kudeaketari dagokienez, kudeaketa hori foru-organo eskudunei dagokiela, txosten teknikoa eta naturagune babestu bakoitzaren fitxa foru-aldundiei bidali zitzaizkien, bi hilabeteko epean egoki iritzitako oharrak egin zitzaten.

Era berean, uztailaren 18ko 27/2006 Legearen arabera (ingurumenaren arloan informazioa eskuratzeko, publikoki parte hartzeko eta justiziara jotzeko eskubideak arautzen dituen), txostena eta fitxak interesdunen eskura jarri dira, Irekia egoitza elektronikoaren bidez.

Agindu honetan arautzen den gaiari dagokionez, Lehendakariaren irailaren 6ko 18/2020 Dekretuak (Euskal Autonomia Erkidegoaren Administrazioari sailak sortu, ezabatu eta aldatzen dituen eta sail bakoitzaren egitekoak eta jardun-arloak finkatzen dituen) 8.1 artikuluan u) eta w) letretan ezartzen duenez, Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumen Sailari dagozkio natura-ondarea kontserbatzea –8.1.u) artikulua– eta natura-baliabideak antolatzea eta natura kontserbatzea –8.1.w) artikulua–.

Horrenbestez, eta Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen lehenengo xedapen gehigarrian ezarritakoarekin bat etorriz, honako hau

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Euskal Autonomia Erkidegoan deklaraturako biotopo babestuen babes-figura Euskadiko natura-ondarea kontserbatzeari buruzko azaroaren 25eko 9/2021 Legearen 37. artikuluan ezarritako naturagune babestuen tipologia egokitzea, taula honen arabera:

Biotopo babestua	NKNB kategoria	Tipologia (9/2021 legea)
Añanako diapiroa	V Paisaia Babestua	Paisaia Natural Babestua
Gaztelugatxe	III Natura Monumentua	Natura Monumentua
Inurritza	IV Habitatak/espezieak kudeatzeko eremua	Paisaia Natural Babestua
Guardiako aintzirak	I.a Erreserba Natural Zorrotza	Natura Erreserba
Meatzaldea	V Paisaia Babestua	Paisaia Natural Babestua
Leitzaran ibaia	IV Habitatak/espezieak kudeatzeko eremua	Natura Erreserba
Deba-Zumaia	V Paisaia Babestua	Paisaia Natural Babestua
Itxinako mendigunea	III Natura Monumentua	Natura Monumentua

Bigarrena.– Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea. Era berean, aplikaturako esleipen-metodologiari buruzko informazioa eta espazio bakoitzaren egokitzapenari dagokion fitxa Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrean natura-ondarea kontserbatzeko eskumena duen sailaren webgunean argitaratzen dira: https://www.euskadi.eus/documentacion/adaptacion_biotopos/eu_def/adjuntos/biotopoenAzterketa.pdf

Hirugarrena.– Agindu honek Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera izango ditu ondorioak. Ebazpen honek amaiera ematen dio administrazio-bideari, eta, beraren aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusian, bi hilabeteko epean, ebazpena argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 10. artikuluan ezarritakoaren arabera. Nahi izanez gero, eta aldeztu aurretik, berraztertze adinistrazio-errekurtsoa aurkeztu ahal izango zaio organo honi, hilabeteko epean, argitaratu eta

hurrengo egunetik aurrera, Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. eta 124. artikuluetan xedatutakoaren arabera.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko martxoaren 20a.

Ekonomiaren Garapen, Jasangarritasun eta Ingurumeneko sailburua,
MARÍA ARANZAZU TAPIA OTAEGUI.